

# «AZTERTUKO DEN MEDIKAMENTU BERRIA» FITXA EBALUATZEKO INKESTAREN EMAITZAK

MEDIKAMENTU BERRIEN EBALUAZIO-BATZORDEA



[www.osanet.euskadi.net](http://www.osanet.euskadi.net) (profesionalak)




Joan den azaroan, Medikamentu Berrien Ebaluazioko Euskadiko Batzordeak, enpresa espezializatu bati «Aztertuko den Medikamentu Berria» fitxaren irakurleen artean inkesta bat egiteko enkargua eman zion, fitxa horren atal desberdinei buruz zer balorazio egiten zenuten jakiteko helburuaz. Jarraian aurkeztuko dizuegu emaitza garrantzitsuenen laburpena. Zalantzarik gabe, zuen iritzia jakitea erreminta baliosua izango da hobetzeko, eta Fitxa zuen premietara hobeto egokitzea ahalbidetuko du.

Inkesta aleatorizatu elkarrizketa telefonikoen bidez gauzatu zen. Aztertu zen populazioan Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzurako lan egiten duten Lehen Mailako Atentzioko (LM) eta Atentzio Espezializatuko EAEko mediku guztien multzoa barne hartzen zen. Inkesten lagina 302 medikuk osatu zuten (152 LMkoak eta 150 espezialistak). Datuen analisi zehatzago bat egin nahi baduzue, eskura ditzakezue berauek honako helbide honetan:


[http://www.osanet.euskadi.net/r85-13862/eu/contenidos/informacion/innovaciones\\_terap/eu\\_1221/innter\\_e.html](http://www.osanet.euskadi.net/r85-13862/eu/contenidos/informacion/innovaciones_terap/eu_1221/innter_e.html)

## HARPIDETZA ETA IRAKURKETA

Erregularitasunez jasotzen al dituzu «Aztertuko den medikamentu berria» Fitxak paper euskarrian?




«Aztertuko den medikamentu berria» Fitxaren zer motatako irakurketa egiten duzu?




## BALORAZIOA


Zeure asistentzia lanerako Fitxaren edukiak daukan baliagarritasuna




Fitxetan ematen den informazioa objektiboa al da?



## Ados al zaude fitxetan ematen diren gomendioekin?



## Fitxen baliagarritasuna hobetzeko egin beharko liratekeen aldaketak



Fitxen hedadura aldatu beharko litzatekeela uste duten medikuen artean (kop =31), %71k uste dute laburragoak izan beharko luketela.

### IRADOKIZUNAK


Elkarrizketatu diren 302 medikuetatik, 71k (%23,5) fitxak aldatzeko iradokizunak egin zituzten; gehienek oinarrizko alderdiak aipatzen dituzte: soilagoak izan beharko luketela, zehatzagoak, laburragoak eta espezialitateen arabera bereziak.

### BESTE ALDERDI BATZUK

Inkestak era berean balio izan zигun Medikamentu Berrien Ebaluazio Batzordearen jarduerarekin erlazioaturiko beste alderdi batzuei buruz galdetzeko ere. Hala, irakurleei galdetu genien ea ezagutzen duten medikamentuaren ebaluazioari buruzko txosten osoa, alegia, Osakidetza Intranet web gunean erabilgarri dagoena, eta %70,5ek ez zutela ezagutzen erantzun zuten eta %13,6k bakarrik adierazi zuten noizbait kontsultatu izan dutela.

Era berean, Fitxarekin batera banatzen den «Publizitatearen Kritika» liburuxka berriari dagokionez, honako galdera hau formulatu zen:

## Lagungarria gertatzen al zaizu «Publizitatearen Kritika» liburuxka laborategiak ematen duen informazioa interpretatzeko?



### BATZORDEAREN IRADOKIZUNAK

Inkestaren emaitzek berretsi egiten dute gure lanaren baliagarritasuna eta, eta badaude azpimarratu beharreko alderdi batzuk:

- **Fitxa oso erabilia gertatzen da profesionalen aldetik, medikamentuei buruzko informazio iturri gisa, eta hori pozgarria da Batzorde honentzat.**
- **Pozgarria da, halaber, bere baliagarritasunari buruz egiten den balorazioa ere, LMko %84k eta espezialisten %69k Oso baliagarria edo Nahiko baliagarria gisa kalifikatzen baitute.**
- **Objektibotasunari dagokionez, pozgarria da jakitea profesionalen %79k beti edo ia beti objektiboa dela esatea (desberdintasun esanguratsurik gabe LM eta espezialisten artean).**
- **Gure gomendioekiko adostasuna «beti edo ia beti» gertatzen da profesionalen %74tan (desberdintasun esanguratsurik gabe LM eta espezialisten artean).**

### HOBETU BEHARREKO ARLOAK

- **Begi bistako da arazoak daudela fitxaren zabalkundean, batez ere espezialisten taldean. Garrantzitsua dirudi gogorazteak badagoela aukera Medikamentu Berrien Ebaluazio Batzordeak sortzen duen dokumentazio guztia eskuratzeko Osakidetza Intraneten bidez edo Osaneten web gune honen bidez: [http://www.osanet.euskadi.net/r85-13862/eu/contenidos/informacion/innovaciones\\_terap/eu\\_1221/innter\\_e.html](http://www.osanet.euskadi.net/r85-13862/eu/contenidos/informacion/innovaciones_terap/eu_1221/innter_e.html)**
- **Era berean, fitxak posta elektronikoz bidaltzeko eskabidea ere egin daiteke, eskualdeko farmazialariekin edo MIEZekin harremanetan jarritz.**
- **Kontuan edukirik Ebaluazio txosten osoaz irakurleek omen daukaten ezagutza urria, gure ustez, gogorazi beharra dago aipatu txostenean jasotzen direla kontsultaturiko bibliografia guztia, aztertu diren entseu klinikoan analisi kritikoa eta farmakoaren ebaluazioarako kontuan hartzen diren alderdi guztien deskripzio zehatza. Fitxaren edizioetan aurrerantzean formatuaren aldaketa txiki bat sartuko dugu aipatu txostenaren eskuragarritasuna adierazten duen esaldia leku nabarmenago batean kokatzeko. Gainera, beronen ezagutza errazteko, adibide gisa, elaboratzen den hurrengo «Aztertuko den Medikamentu Berria» fitxarekin batera ebaluazio txostena banatuko da.**

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkizuegu inkestan parte hartu duzen guztioi helarazi dizkiguzuen irizpide eta iradokizunengatik eta eskertuko genizueke zeuon proposamenak bidaltzen jarraituko bazenute Fitxa hauek hobetzen jarraitu ahal izan dezagun.